

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

2018ko apirilaren 20ko jakinarazpena, bide publikoan bertan behera utzitako ibilgailuen prozedurari buruzkoa

Bide publikoan bertan behera utzitako ibilgailuak (1/2017 espedientea)

Behean zehazten diren ibilgailuen titularrei edo gidariei jakinarazteko ahaleginak egin dira espresuki; baina, hainbat arrazoï dela medio, ezin izan zaie jakinarazi; horregatik, iragarki hau argitaratzen da Estatuko Aldizkari Ofizialean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoan administrazio prozedura erkidearenak, 44. artikuluan eta harekin bat etorri eta aplikagarri diren gainerako xedapenetan xedatutakoa betetzeko.

Urriaren 30eko 6/2015 Legeak, trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazio eta bide segurtasunari buruzkoak, 106. artikuluan bertan behera utzitako ibilgailuak nola eta nora baztertu arautzen du; alegia, eskumena ematen dio udalari uste sendoz bertan behera utzita dauden ibilgailuak bide publikotik kentzeko. Zeregin horrek, jakina, zenbait gastu dakartza berekin (garabi zerbitzua, zaintza eta biltegi tasak...), eta horiek ibilgailuaren titularrari eskatu ahal zaizkio, bai eta administrazio premiamenduaren bidetik ere.

Halakorik saiheste aldera, eskatzen zaie, idazki hau jaso eta 7 egun igaro baino lehen, ibilgailua bide publikotik ken dezatela. Ibilgailua bide publikoko toki batetik beste batera eramateari ez zaio kentzea irizten. Bide batez, ohartarazten zaie, halakorik egin ezean, ibilgailua udal biltegiara eramango dela eta goian aipatutako gastu guztiak kobratuko zaizkiela.

Nahi izanez gero, zazpi egun izango dira, ibilgailua zatikatzeko adostasun akta, honekin batera doana, izenpetzeko. Akta hori izenpetuz gero, ibilgailua udalari lagatzen zaio, eta berorren ardura izango da ibilgailua zatikatzeko beharrezko izapideak egitea.

Espediente zenbakia: 1/2017

Matrikula: GC-3102-BW

Marka eta modeloa: Citroën Berlingo

Titularra: María de Las Nieves López Ramírez

Santikurutze Kanpezu, 2018ko apirilaren 20a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO